



Denboraren kontzeptua zirrara garria da. Dimentsio fisikoa, kulturala, pragmatikoa, politikoa, klase dimentsioa, genero dimentsioa... hamaika ardatz ditu. Zigor neurria da. *Sei urteko kartzela zigorra. Astebete postrerik gabe.* Edo truke mekanismoa. *Denbora bankua.* Gure bizitzaren ibilgua daraman erraila da. Denbora mugimenduan dago. *Iragana eta etorkizuna.* Iragan eta etorri egiten da. Denborak hartzaileak ditu. *Niretzako denbora behar dut.* Edo jabeak. *Zure denbora kudeatu behar duzu.*

Puntualtasunaren talibanentzat, guztionak balio bera duela esatea aldarrikapen betierekoa da. Puntualtasuna kapitalismoaren asmakizuna dela esanez berandu heltzeko eskubidea politizatzen dutenentzat, errealitate asimetrikoa. Haien berandutzeko eskubidearen atzean ezkututzen den logika hierarkikoa dela sentitzen dute puntualek. Norbaitek berandu iristeko *eskubidea* izan dezan, beste norbaiti bere denbora zain emateko *betebeharra* sortzen dio.

Denbora eskaini egin dezakegu. *Baduzu minutu bat niri eskaintzeko?* Edo hartu. *Ez dut inoiz horretarako denborarik hartzen.* Eta ematen den guztia bezala, ken dezakegu. *Honek ez ditu denbora askorik kenduko.* Denbora da sendagairik fidagarriena, dena sendatzen baitu. Eta justizia egile gorenaren omen da, bakoitza bere lekuan uzteko gaitasuna ei duelako.

Pepe Mujicak esan zigun zerbait erosten dugunean bizitzarekin ordaintzen ari garela, ondasun hori eskuratu ahal izateko diruaren truke lanean joan zaigun denbora dela prezioa. Berri Txarrak esanetan poligrafo bakarra da.

Denboraren dimentsio kulturala da, ordea, gaur-gaurkoz zeharo liluratuta naukana. Mandarin hizkuntzan, esaterako, iragandako gertakari bati edo hurrenkeran lehenago jazo den zerbaiti erreferentzia egiteko *qián* terminoa erabiltzen da, aurrez aurre ere esan nahi duena, kasu batzuetan. Hurrengo datorren zerbaiti edo etorkizunean gertatuko den zerbaiti buruz aritzeko berriz, *hòu* erabiltzen da. Hizki honek, era berean, atzealdeari erreferentzia egiten dio beste testuinguru batzuetan.

Gure iruditeria kolektiboan, gure kosmobisioan, iragana atzean uzten dugula irudikatzen dugu. Etorkizunera begiratzen dugu, aurrean dago eta harantz mugitzen gara. Mandarinerak erakusten duen kosmobisioan ordea, etorkizuna atzean dago. Ikusi dezakegun bakarra, ezagutu dezakeguna, iragana da. Hari begira atzerantz ibiltzen goaz, etorkizunera, ikusi ezin ditugun gertakarietara.

Kontzeptu eta hitzen arteko josteta honek bizi esperientzia kolektiboan izan dezakeen eragina ezezaguna zait, baina egon, badago. Bistan da guk egun denborarekin dugun borroka. Guda zelaia da. Hartu, kendu, nori eman, zenbaten truke, zeri eskaini, nori eskaini, kalitatezkoa, bi gertakariaren artean baliorik gabe igarotzen dena, galdu egiten da, aurreztu... Mundu ikuskera bat (edo asko) gorpuzten dituen zutabe honetan egirik bada, bakar hau dela esatera ausartuko nintzateke: denbora da. Gu ohartu ala ez. Hartu ala ez. Eskaini ala ez. Lapurtu ala ez. Eta guk egin dezakegun bakarra denbora den bitartean zer egin erabakitzea da.

## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)